

HISTORIA TXATALAK

San Jose eta Santiagoren irudi berrituak



>Olabarrietako santutxuan, San kristobalen aldamenetan dauden bi irudi txikiak berritu egin ditu bertako ermandadeak. San Jose eta Santiago erromesaren irudiak dira, eta XVI. mende hasierakoak izan daitezkeela uste dute, Jose Ramon Arrazolak 'Historias de San Cristóbal de Olbarrieta en Oñati' liburuan azaltzen duen moduan. Badirudi, bi irudi hauek Olabartako San Kristobal ermitan (1813-1817 artean desagertua) egon zirela lehenengo, eta 1781 aldera ekarri zituztela santutxura.

Piopia erasanda zeuden bi irudiak, eta, beraz, xilofagoen kontrako tratamendua eman diete, eta, bide batez, polikromia kontsolidatu dute. Gainera, San Josek sorbaldan daukan Jesus haurraren jantzia ere berritu dute.

Olabarrietako bidegorria egin denetik, jende asko pasatzen da orain santutxuaren aurrealdetik, eta aukera dute orain berritutako irudiak ikusteko.

Murgia

> Jerardo Elortza

Badu Murgia auzoak ere, alderdi askotatik begirata, azpimarratzekorik: historia, parajea bera, ekonomia eta beste hainbat jakingarri. Erdi Aroan, Uribarri auzoarekin batera, oinaztarren bandoaren gotorlekua izan omen zen, arranoena alegia; ikuspegi paregabeak ditu Aloña, Udalaiz, Anboto eta beste bista eder askorekin; eta ohi-ko nekazaritzaz gain, beste alor batzuek ere garrantzia handia izan dute hemen: Kataberako meategiek, mugakide den Olabarrietako eta beste toki batzuetako teileriek, haizpeko ikazkintzak, errotek eta txakolin-mahastiek, bertako artzainen joan-etorriak eta lanak ahaztu barik.

Dena den, gaurkoan beste esparru batzuei ere erreparatuko diegu. Adibidez, Oñatiko deitura ezagun askok Murgian izan dezakete euren jatorria; horien artean Umerez, Murguzur, Maiztegi eta Biain ditugu ugarrienak gaur egun, baina izan dira historian zehar auzo honetako baserrietatik eratorritako beste abizen batzuk ere: Eizagirre/Izagirre (Eiziar), Azkarreta, Arretxe, Estenaga, Bustinzurieta, Jauregi, Elorriaga edota Murgialdai, esaterako.

Izenekin ari garela, adierazi behar da Murgian (txantxikua-

AUZORIK AUZO

Oñatiko abizen askok Murgia auzoan dute euren jatorria

rron Murgixan), beste toki askotan legez, aldaketak eta bitxikeriak gertatu izan direla: orain Eiziar (Eizagirre) Goikua izendatzen den baserria lehenago are gorago kokatzen zen, Aixerikoa Eizagirre Erdikoa deitzen zen, eta Kamelakoa Eizagirre Barrena; Juanikogarrena baserria Biain Herederokoa moduan azaltzen zaigu XIX. mendera arte, eta han Juaniko Agirre bat bizi izan zelako hartu zuen oraingo izena; esan, azkenik, Murgiako Arretxe baserrietik Auzotxora (oraingo Martzelino Zelaia kalera) joandako Pope zeritzan baten bitartez sortu zela *Poparretxe*, eta ez Papparretxe, familia horren goitzen zaharra.

Lehenago Maalan ere beste ermita bat egon zen arren, bakarra eza gutzen dugu orain Murgian: Asentzio. Honek ere aldaketa bat baino gehiago izan du gizalditan zehar. Lekuz aldatu zuten 1906an, Murgialdai baserri ondotik orain aurkitzen den gaintxora, Ladislao Sagastizabal, Bixain baserriko semea, Oñatiko San Migel parrokiako erretoze zela eta auzotar batzuen iritziaren kontra. Baseliza hau San Andres apostoluari eskainia zen hasieran eta oraingo adbokazioa (Asentzio) XVII. mendearen hondar aldean hartu zuen. Alabaina, unibertsitate zaharreko obretan jardun zuen Borgonako Felipe artistak 1555 inguruan San Andresen omenez zizelkatutako erretablea errenazentista polita dauka oraindik, baita lan hori enkargatu eta ordaindu zion Murgialdai-ko Andresen eta bere emaztearen irudiak ere, bi borobiletan sartuta.

NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behekoa • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@telefonetia.es